


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2003KO AZAROA

Euskal AEko eraikuntzako kostuek % 0,1 behera egin zuten, 2003ko azaroan

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko azarokoa, 2002ko azarokoarekin alderatuta) % 2,5ekoa izan da.

2003ko azaroan, % 0,1 urritu zen Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea, aurreko hilaren aldean, eta, horrenbestez, hil horretako urte arteko tasa % 2,5ekoa da, Eustatek eskainitako datuen arabera. Urteko lehenengo hamaika hilabeteko tasak, aurreko abenduaren gainean, % 2,4ko igoera izan du.

Urte arteko aldakuntzaren tasak, 1995-2003



(*) eskainitako gehikuntza azaroko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko azaroa, 2002ko azaroaren gainean), lan-eskuaren kostua % 5,8 handitu da; lehengaien kostuak, berriz, % 0,2 hazi dira.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute. Biek hala biek % 0,1eko gutxitzea izan dute, aurreko hilaren gainean. Azpisektore bi horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu biak hazi direla, neurri berean ez bada ere: *eraikuntzako* kostuak % 2,3 hazi dira, eta *obra zibilekoak*, aldiz, % 3,1.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko azaroan, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *energia elektrikoa* (% 1,6), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (% 0,7), *plastikozko hoditeria* (% 0,7), *bulegoko materiala* (% 0,5) eta *burdina eta altzairua* (% 0,4). Aitzitik, hileko batez besteko prezioetan murrizketak izan

dituzte *laneko arropak* (% -3,9), *karea, igeltsua eta eskaiola* (% -2,6), *beira* (% -1,8) eta *leherkariak eta gasak* (% -1,3) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2003KO AZAROA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	122,3	-0,1	2,5	2,4
ERAIKINAK	122,4	-0,1	2,3	2,2
OBRA ZIBILA	121,8	-0,1	3,1	2,7
LEHENGAIEN KOSTUA	113,9	-0,2	0,2	0,0
ERAIKINAK	114,1	-0,2	-0,1	-0,2
OBRA ZIBILA	113,3	-0,2	1,2	0,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 017 505. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es